

## **2025KO EKITALDIKO DIRU LAGUNTZA IZENDUNA**

ESKORIATZAKO UDALA

ETA

LEINTZ ESKOLA KIROLA

Eskoriatzan, 2025ko ekainaren 17an.

### **BILDUTAKOAK**

**Alde batetik**, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko Alkate-udalburua.

**Bestetik**, Urki Herrasti jauna, Leintz Eskola Kiroleko (hemendik aurrera LEK) Lehendakaria.

### **PARTE HARTZEN DUTE**

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak **ESKORIATZAKO UDAL**Aren izenean eta ordezkari izan. Urki Herrasti jauna, **LEK**en izenean eta ordezkari izan, zeinak helbidea Arrasaten, Elkano Kalea, 27.eanduen eta IFK G20862603 den.

### **AZALTZEN DUTE**

Deba garaiko eskola kirolaren zati bati erreparatuz, Arrasatek-Aramaiok batetik eta Aretxabaletak-Eskoriatzak bestetik, 1990-1991 ikasturtean abian jarri zituzten Eskola Kirol Proiektuak. 2003-2004 ikasturtean proiektu bien arteko hurbilketa bat egin zen, azkenik, 2004-2005 ikasturtean **LEINTZ** **ESKOLA KIROLA** sortu zelarik.

Ordutik, 1000 haur inguru mugiarazten dituen proiektu honek, arabako eta gipuzkoako foru aldundien, 5 udaltxeren (tartean Eskoriatza) eta 7 ikastetxeren laguntzaz, inguruko umeei kirol aniztasunean hezteko aukera ematen die; haurrak kirolaren mundura gerturatuz eta aukera zabala eskainiz, modu honetan gustuko duten kirol bat aurkitzeko aukera paregabea eskainiz, zeinakgerora, bizi eredu osasuntsu baten parte izaten lagunduko dion.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da diru laguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udaleko 2025ko aurrekontuetan **LEK**entzat 31.365,08 euroko diru laguntza nominatiboa aurreikusten da. Kopuru horren zati bat zuzenean udalak emandakoa izango da, bi azpi zatitan banatuta, batetik ohiko kirol jarduerak zuzentzeagaitik emango dena (7.416,08 €), eta bestetik eskola kirol Egokituagaitik emango zaiena (573,00 €), bestea aldiz, foru aldunditik etorriko dena.

Leintz Eskola Kirolak bailarako gaztetxoentzako jarduera desberdinak antolatzen ditu, badira hiru urte Eskola Kirol Egokitua eskaintzen dutela, bertan, behar bereziak dituzten pertsonak partehartzen dute. Honek monitore gehiagoren beharra suposatzen du, beraz, gastua handitzen da.

Gainkostu hori, taldean dauden pertsona kopuruaren artean zatitzen da, honela, pertsona bakoitzaren gastua kalkulatu da. Ondoren, herri bakoitzetik talde horretan dagoen herritar kopurarekin biderkatzen da, herri bakoitzak ordaindu beharko lukeena kalkulatzeko. Bestalde, indarrean dauden kirol araudiek Eskola Kirolaren inguruan diotena ezagutzen dutela:

a) *EAE*n Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea:

- 6. artikulua- Udalak – a) Udalei dagokie, lurralde historikoetako foru organoek onartutako eskola-kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatu.

- 53.artikulua- Kontzeptua- Ikasleek nahitaezko eskolatze aldian irakas-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua izango da eskola kirola.
- 54. artikulua- Eskola kirolean, ahal dela, kirol anitz praktikatuko da eta lehiaketa-kirola ez da izango helburu bakarra.
- 56.artikulua- Egituraketa:
  - 1.puntua: Eskola garaian egiten den kirola, funtsean **ikastetxeen bitartez egituratuko da** kirol klub eta elkarteentzako ikasleen guraso-elkarteen lankidetzaz aktiboarekin.
  - 3.puntua: **Udalak elkarlanean ariko dira ikastetxeekin eta foru aldundiekin eskola kirolerako programak egoki garatzeko.** Horretarako, bati-bat, udalaren kirol-ekipamenduak erabiltzen utziko dute.

*b) 125/2008 DEKRETUA, uztailearen 1ekoa, Eskola Kirolari buruzkoa:*

- 1. artikulua- Kontzeptua- 1.puntua: Dekretu honen ondorioetarako, eskolako kirola da eskola-umeek nahitaezko eskola-aldian baina eskola-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera.
- 2. artikulua- Funtzioak eta ezaugarriak:
  - 1.puntua: Eskolako kirola nagusiki kirol anitzekoa izango eta ez da soilik lehiakortasunera bideratua egongo. Horrenbestez, eskola ume orok hainbat kirol modalitate ezagutu eta praktikatuko dituela bermatuko da.
  - 2.puntua: Herri administrazioak eskolako kirola ikastetxeen heziketa proiektuetan txerta dadila bultzatuko du, bai eta ikastetxeen urteko planetan ere.
- 15.artikulua- Egitura eta eragileak. Eginkizunak:
  - 4.puntua: Herri administrazioek ikastetxeen eta kirol klub eta elkarten arteko elkarlana sustatu beharko dute, jardueren prestakuntza alderdiari begira.
  - 12.puntua: Udalak izango dira lurralde historikoetako foru organoek onarturiko programak exekutatzeko ardura izango dutenak, foru organo horiekin elkarlanean; beste ekintza batzuen artean, jarduerak egiteko instalazioak lagako dituzte nagusiki.

Azkenik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dutela.

## **BALDINTZAK**

### **LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUAK**

Lehena.- **KONPROMISOA:** Udalek eta "LEK" osatzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute elkarrekin lan egitea urteko Leintz **Eskola-kirola** garatzeko. Horretarako ikastetxeen ordezkariak eta Udaletako ordezkariak bilduko dira, adostuko den moduan eta aldiro.

Bigarrena.- 2025ko ekitaldiko udal aurrekontuan Leintz Eskola Kirolaren izenean dagoen diru laguntza izenduna antolatzea ohiko funtzionamenduak zein elkarteak 2025 ikasturtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko elkarte horri.

## **BIGARRENA.- EGIN BEHARREKOAK**

### **UDALAREN EGITEKOAK:**

#### **- Parte hartzea:**

- Ahal den neurrian programa aurrera eramaten lagunduko du, jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren instalazioak eskura ipiniz.
- Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Kirol kluba edo eta Federazioekin bitartekaritza lanak egingo ditu

#### **- Ekonomikoak:**

- Eskoriatzako Udalak 7.989,08 euroko diru laguntza ematen dio 0400.481.341.10.01 aurrekontupartidatik aurreko baldintzan aipatutako jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.
  - Udalaren diru-laguntza hau bestelako diru laguntzekin bateragarria izango da, gain finantzaziorik ematen ez den bitartean. Gain finantzaketa egongo balitz, Eskoriatzako Udalak, bere ekarpena gainontzeko Udalek egindako ekarpenen araberako proportzioan gutxituko du (LEKek aurkeztutako aurrekontuak errebisatuz; Udalen diru laguntza totala 73.640,38 euro izango liratekeela kontuan izanik, eta horietatik Eskoriatzak 7.989,08 euro (7416,08 euro ohiko programarako eta 573,00 euro Eskola Kirol Egokiturako) emango lituzkeela; horrek esan nahi du Eskoriatzako Udalari dagokion proportzionaltasuna %10,84 izango litzatekeela.
- Eskola Kirolaren proiektua garatzeko, A-1 eta A-3-a) (hau LEKeko ekintzekin erlazionatuta dagoenean) hitzarmena dela eta Foru Aldundiak Udalari bideratzen dion diru laguntza osoa, iritsi bezain laster eta zuzenean, LEK-eri emango dio Udalak.

#### **- Instalazioak erabiltzeko baimena:**

- Asteleheneretik ostiralera: 7:00 – 21:00
- Larunbatak: 9:00 - 13:00 eta 16:00 – 20:00
- Igandeak eta jaiegunak: 9:00 – 13:00
- Abuztuan 6tik 26ra (biak barne): 9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Erabilera bakarrik eskola kiroleko entrenamendu saioak emateko uzten da. Hortik aparte beste ordutegi bat erabili nahi bada, berariazko beste baimen bat lortu beharko da, eta hala bada, indarrean dauden tasak ordaindu.

LEK eta Eskoriatzako udalaren artean adostutako egutegitik kanpo Elkartek kirol instalazioren bat beharko balu ez ohiko jardueraren baterako, eskaria kirol zerbitzuari egin beharko dio, behar besteko denborarekin beste erabilera batzuekin koordinatu ahal izateko.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoiak behar moduan egiaztatzen baditu, kirol instalazioak erabili ahal izango ditu Udalak egutegian Elkartearantzat gordetako egunetan. Erabilera hori aldi baterako Udalari itzultzea justifikatzen duen arrazoiak horrela ahalbidetzen badu, Udalak hilabete aurretik emango dio erabilera horren berri Elkarteari.

## **IKASTETXEEN EGITEKOAK:**

### - Programa:

Leintz bailarako Eskola Kiroleko urteko programa proposamena osatuko du, hala nola, JARDUERAK, AURREKONTUA eta KUOTAK.

### - Diru laguntzak:

Udal diru laguntzen eskaera (ikasturtearen hasieran) eta dagokien memoria (ikasturtea amaitzean, uztailean) osatuko dute.

### - Instalakuntzak:

Ikastetxeak dira, araudiak aitortzen dien bezala, ikaslearen lehentasunezko esparrua. Beraz, ikastetxeetako instalazioak lehenetsiko dira eskola kiroleko taldeen erabilerak programatzeko garaian.

## **HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.**

Diruz lagungarritzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak inolako zalantzarik gabe.

Gastuak diruz lagungarri izateko arau orokorrak hiru printzipio ditu:

- Gastuak diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar dio.
- Gastuaren kostea ezingo da izan merkatukoarena baina handiagoa.
- 2025ko ikasturtearen barruan egin beharko da.

Honakoak hartuko dira gastu lagungarritzat:

- Federazioko gastuak
- Arropa edo kirol materiala, jarduera aurrera eramateko beharrezkoa dena.
- Kirol ekintza bereziak
- Sustapen jarduerak
- Aseguruak
- Dietak, kilometro-gastuak eta bazkari-afari-hotel edo ostalaritza zerbitzuen kostea antolatutako jardueraren batekin zalantzarik gabe behar bezala identifikatuta daudenean. Edozein modutan, koste horiek behar besteko proportzioa gorde beharko dute egindako gastuaren eta lortu nahi zen helburuaren artean.
- Beste gastu batzuk, adibidez, bulegoko material suntsikorra, telefonoa, interneterako lotura, garbitasun materiala, ibilgailuentzako erregaia eta abar "gastu justifikagaitzak" izeneko sail bakarrean jaso ahal izango dira. Horiek ez dute dokumentu bidez justifikatu beharrik izango, baina ezingo dute, inolaz ere, erakundearen gastu osoaren % 10a gainditu.

## **LAUGARRENA.- BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA**

Udalaren diru laguntza hau bestelako diru laguntzekin bateragarria izango da. Diru laguntza publiko guztien baturak LEKen diru sarrera guztien %50a ez du gaindituko. Gaindituko balu, bigarren baldintzan zehaztutako gainfinantzaketa kasuan bezala jokatuko litzateke.

## **BOSTGARRENA.- DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEKO EPEAK**

Udalaren ikasturteko diru laguntza bi zatitan emango da:

*Lehenengo zatia:* diru laguntza osoaren %60a, Udal aurrekontuen onarpena egin ondoren, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta hitzarmen hau sinatutakoan.

*Bigarrenengo zatia:* Diru laguntza osoaren %40a, ahal bada urtea amaitu aurretik, beti ere, LEKek ikasturteko memoria eta diru kontuen dokumentuak aurkeztu eta gastuak justifikatu baditu.

## **SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA**

Justifikatzeko modua, kontu sinple justifikatu bidez izango da.

Ahal dela, 2025ko abenduaren 15a baino lehen, eta justifikazio ondorioetarako, Leintz Eskola Kirolak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean edo Manuel Muñoz kiroldegian:

- Eskaera orria (bigarren zatia kobratzea eskatuz).
- Jarduera osoaren memoria.
- Kontuen gaineko auditoria dokumentuak.

## **ZAZPIGARRENA.- PUBLIZITATEA**

LEK-en ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean Eskoriatzako Udalaren babesletzaren berri emango du LEK-ek.

## **ZORTZIGARRENA.- EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA**

Leintz Eskola Kirolak bere gain hartzen du euskararen erabilerearen normalizazioaren alde lan egitea, eta orain arte egin duen bezala, euskera hutsean eskiniko ditu bere jarduera guztiak (entrenamenduak, idatzizko zein ahozko komunikazioa etab.)

## **BEDERATZIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN PROZESAMENDUA**

Eskoriatzako Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu bere langileek hitzarmen honetan jasotakoa garatzerakoan informazio konfidentziala -eta bereziki, informazio pertsonala- erabili behar izanez gero, indarrean dagoen araudiaren arabera dagokien edozein betebeharrak bete eta araudi hori erabat

errespeta dezaten. Indarrean dagoen araudia esaten denean, bereziki, datu pertsonalak babesteko lege organikoa eta hori garatzeko erregelamendua esan nahi da.

Horretarako, langile horiek konfidentzialtasun eta sekretu profesional betebeharrari lotuta gelditzen dira eta eskuratutako informazioa bakarrik hitzarmen honetan aurreikusitako helburuetarako erabiliko dute.

### **HAMARGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.**

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Kirol arduraduna edo berak izendatutako pertsona.
- LEKen aldetik : LEKeko lehendakaria edo berak izendatutako pertsona.

### **HAMAIKAGARRENA.- BAIMEN KLAUSULA**

LEK-ek baimena ematen dio Eskoriatzako Udalari, Sektore Publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan hitzarmen honen ondorioz emandako diru laguntzaren baldintza guztiak betetzen direla.

### **HAMABIGARRENA.- INDARRALDIA**

Hitzarmen hau hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2025ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

### **HAMAHIRUGARRENA.- SUNTSIPENA**

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela jakinarazi eta gero.

### **HAMALAU GARRENA.- IZAERA**

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

**Eta ados daudela egiaztatzeko, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute bikoizturik; goiburuan aipatutako leku eta egunean.**

ESKORIATZAKO UDALAREN IZENEAN

LEK-EN IZENEAN